

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udal hilerriaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari

Udal honek, 2024ko urriaren 24ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udal hilerriaren tasa arautzen duen ordenantza aldatzeari.

Iragarkia 2024ko urriaren 30eko ALHAOn, 124. zenbakian, argitaratu zen, eta jendaurrean egoteko aldian ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onetsi da, eta honela geratu da idatzita:

“UDAL HILERRIAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoaren arabera, udal hilerrian zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasa ezarri eta eskatzen du ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita aplikatzeko tarifak jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan aplikatzen da eta, zehazki, 2001ean Artziniegako hilerrian eraikitako 81 horma hobiei eta Erretes Tudelako hilerrian eraikitako horma hobiei.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Ordenantza honetako eranskinean jasotako tarifiaren adierazitako zerbitzuren bat ematea da zerga egitate. Horrek berekin ekarriko du ordaindu beharra.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

Baimena edo zerbitzua eskatzen dutenak dira zergapeko subjektu pasiboak, eta, hala dago-kionean, emandako baimenaren titularrak.

5. artikulua

Erantzuleak. Subjektu pasiboaren zerga betebeharragatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. eta 42. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak.

6. artikulua

Salbuespen subjektiboak. Salbuetsita egongo dira honako zerbitzu hauek:

a) Ongintza etxeetan bizi diren pertsonen ehorzketak, baldin eta gorpua etxe horiek eramaten badute hilerriera eta hildakoen senideek hiletarik ordaintzen ez badute.

b) Arras pobreen gorpuen ehorzketak.

IV. ZERGA OINARRIA

7. artikulua

Zerbitzua zein unitatetan gauzaten den, hura da zerga oinarria, tarifen ezarrita dagoenaren arabera.

V. KUOTA

8. artikulua

Tarifen eranskinean jasotako tarifa aplikatuta zehaztuko da zerga kuota.

VI. SORTZAPENA

9. artikulua

Zergapeko zerbitzuak ematen hasten denean sortzen da tasa eta zerga ordaindu beharra eta, horren ondorioetarako, aipatutako zerbitzuak eskatzen direnean hasten direla ulertuko da.

VII. KUDEAKETA

10. artikulua

Aitorpena, likidazioa eta diru sartzea:

- Subjektu pasiboek eskatutik behar dituzte behar dituzten zerbitzuak.
- Zerbitzu bakoitza banan-banan eta autonomoki ordaindu behar da, eta, behin zerbitzua eskainita, jakinarazi egingo da, udalaren diru kutxan zuzenean egiteko ordainketa. Diru sarrera hori Dirubilketako Arautegi Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan egin behar da.

VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

11. artikulua

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da zergen arau hausteen kalifikazioari eta horiei dagozkien zehapenei dagokienez.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea berariaz erabaki arte.

TARIFEI BURUZKO ERANSKINA

Horma hobiak esleitzea

Aldi baterako horma hobiak:

- Hamar urterako: 300,00 euro.

Tarifa aplikatzeko arauak

Lehenengoa- Aldi baterako horma hobei dagokien tasa ordainduta lortzen den eskubidea ez da lursailaren jabetza fisikoa, zeinaren titulartasuna udalarena izango baita, baizik eta gune horietan ehortzitako gorpuzkiak 10 urtez izatekoa.

Bigarrena. Horma hobiak berehala erabiltzeko bakarrik esleitu ahal izango dira, eta debekatu dago geroago erabiltzeko erreserbatzea.

Hirugarrena. Emakidadunaren kontura izango dira horma hobi bakoitzaren mantentze eta kontserbazio gastuak eta ehorzketa, lurpetik ateratze, lekualdatze, hilarri eta abarren gastuak.

Laugarrena. Udal hilerriko hileta emakida bat eskatu ahal izango dute honako hauek honako lehentasun ordena honetan:

a) Hiltzen direnean udalerrian erroldatuta dauden eta aurreko bi urteetan administrazio egoitza udalerrian izan duten pertsona guztiak, bi urtetik beherako kasuan izan ezik, horiek eskubide bera izango baitute.

b) Bizitza osoan udalerrian 10 urte baino gehiagoz erroldatuta egon diren pertsona guztiak.

c) Udalerrian jaiotako pertsona guztiak.

Bosgarrena. Horma hobien erabilera eta egoera bat etorri beharko da haien helburuarekin eta horma hobiak dauden instalazioek duten eginkizunarekin, eta hala izatea eskatu ahal izango da.

Seigarrena. Ezin izango da horma hobien itxura aldatu, ez eta obra edo jarduketarik egin, ez bada udalak berariaz baimentzen duela.

Zazpigarrena. 10 urteko bi luzapen eskatu ahal izango dira, gehienez ere 30 urtera arte. Luzapena administrazio bide ofizialetatik eskatu beharko da, gutxienez urtebete lehenago. Luzapen bakoitzak 150,00 euroko tasa gehigarria izango du. Luzapenagatiko tasa ordenantza berria indarrean jartzen denean kobratuko da, gaur egun okupatuta dauden horma hobietan 10 eta 20 urteko antzintasuna betetzen duten neurrian.

Zortzigarrena. Horma hobiak modu korrelatiboan zenbakituko dira, eta emakidak modu korrelatiboan emango dira.

Bederatzigarrena. Panteoiak, horma hobiak, hezurtegiak eta lurra erabiltzeko hileta eskubideen titularren betebeharra da elementu horiek higijene, apaindura eta kontserbazio baldintza egokietan izatea. Partikularrek garbitu eta kontserbatzeko betebeharra betetzen ez badute, eta elementu horiek hondatuta daudela ikusten bada, udalak errekerimendua egingo dio eragindako eskubidearen titularrari, eta ez baditu lanak adierazitako epean egiten, udalak subsidiarioki egin ahal izango ditu, dagokion partikularren kontura.

Hamargarrena. Emakida baten iraungipena adierazi ahal izango da eta udalaren esku geratuko da berriz ere honako kasu hauetan:

a) Eraikina aurri egoeran badago. Aurri egoera eta horren ondoriozko iraungitzea adierazteko, dagokion administrazio espedientea izapidetu beharko da.

b) Emakida bertan behera utzi dela ematen badu edo hilobia mantentzeari utzi bazaio; hala dela joko da, baldin eta hilobia erabili gabe dagoela ematen badu eta gutxieneko mantentze lanak egin ez badira. Arrazoi hori dela-eta emakida berriz ere udalaren esku geratzeko, dagokion administrazio espedientea izapidetu beharko da”.

Artziniega, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES